

Valentziako Unibertsitateko zortzi irakasle bisitan izan ziren HUHEZIn, gure hezkuntza proiektua ezagutzen

2007/09/23

Joan den astean Valentziako Unibertsitateko **zortzi irakasle** izan ziren Eskoriatzan, **Mondragon Unibertsitatearen** Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea bisitatzen. **Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Departamentukoak** ziren denak, eta etorri ziren gure **hezkuntza proiektua** ezagutzera, bereziki hizkuntza plangintza.

Bisita HEZI Institutuak eta Hizkuntzen Didaktikako Departamentuak antolatu zuten, valentziarrek interesa baitzuten jakiteko zelan lantzen dugun HUHEZIn **eleaniztasuna**. Izan ere, haiek Europako konberjentziara hurbiltzeko bidean daude, eta, bide horretan, interesgarria iruditu zitzaion Mendeberri proiektuaren esperientzia.

Eskoriatzan izan ziren bitartean irakasle valentziarrek aukera izan zuten hemengo esperientzia zuzenean ikusteko, jasotako azalpenekin batera, posible izan zuten-eta aztertzea zelan lan egiten dugun **ikasgeletan**.

